

HKEE-REN PRENTSA OHARRA, OSAKIDETZA-OSASUNAREN EUSKAL ZERBITZUA ZUZENBIDE PRIBATUKO ERAKUNDE PUBLIKOAREN FISKALIZAZIO TXOSTENARI BURUZKOA, 2018.

Joan den urriaren 29an Herri-Kontuen Euskal Epaitegiaren Osoko bilkurak aho batez onartu zuen Osakidetza-Osasunaren Euskal Zerbitzua Zuzenbide Pribatuko Erakunde Publikoaren ekonomia eta finantzaren kudeaketaren fiskalizazio-txostena, 2018ko ekitaldiari dagokiona; baita, Osatek SArena ere, non Osakidetzak baltzu kapitalaren % 100en jabetza duen.

Bi erakundeen **urteko kontuei dagokienez**, HKEEk **aldeko iritzia** plazaratu du; salbuespen da Osakidetzaren kasuan, langileria jakin baten erretiro osagarriengatik geroko ekitaldietan ordaindu beharreko obligazioak kontabilizaturik ez izatea (gastu hauek ordaindu ahala kontabilizatzen dira); honela, bada, 2018ko abenduaren 31n kontabilizatzeko dagoen zenbatekoa 88 milioi euro dela balioetsi da.

Txostenak ondorioztatu du bai Osakidetzak bai Osatek SAk zuzentasunez bete dutela 2017ko ekitaldian ekonomia-finantzaren jarduera arautzen duen lege arautegia; alabaina, ikusi da Osakidetzak kontratu txiki modura izapidetu dituela botika eta bestelako hornigaien erosketak, 19,1 eta 53,8 milioi euroren zenbatekoan, kontratazioaren xedea zatikatuaz. Gainera, esparru-akordioko espediente batean, prezio irizpidearen balorazioak ez ditu eskaintzak sailkatu eskainitako prezio onenaren arabera eta gerora, ia kontratu guztietan kontratuen esleipena eskaintzarik garestien alde egin da.